

Mariaren Frantziskotar Misiolariak

Entre las Congregaciones femeninas modernas que tuvieron un especial atractivo para la juventud vasca se encuentra la de las Franciscanas Misioneras de María ("las Blancas"). Su primera Casa se estableció en Pamplona en 1900, y albergó una Comunidad numerosa. Desde ella salieron para todo el mundo cientos de jóvenes religiosas, que a veces en su ancianidad han vuelto ya al País.

Mariaren Frantziskotar Misiolariak paradoxa handia izan dira Euskal Herrian: Beharbada Karitateko Alabak salbu, ez da egon beste Kongregaziorik gure nesken artean halako erakarmenik izan duenik, eta, hala ere, "Moja Zuri" haue-tako inork gutxik eman du bere bizialdia Euskal Herrian, ia denak erbesteko Misoietarako bidea hartzen baitzuten, Institutuaren zeregi-na Misio-zeregina zelako hain zuzen.

Nortzuk dira, bada, Mariaren Frantziskotar Misiolariok?

Elkarte misiolaria

XIX. mendean, nahiko berandu sortutako emakumezkoen Kongregazioa da hau, baina ondoko hamarkadetan indar handia hartu zuena, estatistikek erakusten duten bezala: 1960ko hamarkadan 11.000 eta gehiago moja izatera iritsi zen Kongregazioa.

Frantziskotar Misiolari hauek *Ama Maria Pasionekoa*-ren (1839-1904) eskutik jaio ziren. Euskaraz, Jean Elizalde "Zerbitzari" idazleari zor diogu izen horrekintxe itzulitako haren biografia (1930).

1877an abiarazitako asmoaren Erromako oniritzia 1885ean eskuratu zuen Ama Pasioneak, eta berehala behin betiko onarpen-babesa lortu eta Konstituzioak ere ematean (1890, 1896) jarri zizkion Kongregazioari bere oinarri juridikoak.

Bien bitartean eta gero, Kongregazioa bizkor zabaldu zen mundura, batez ere Misio-mundu klasikoenera: Ipar Afrika, Txina, Sri Lanka. Baina ez ziren ahantzi Europako Herrialdeak: Frantzia eta Italia, noski, baina era berean Suitza, Belgika, Ingalaterra, Austria, Hungaria...

Kolonialismoaren goraldi-garaia zen (Berlin, 1884...), eta Misoietarako agertu ziren aukera berriak ez zituen galdu Ama Pasioneakoak; XIX.eko azken urteetan Kongregazioak geografia zabaldu zuen, eta fundatzailea hil zenean (1904) 24 Etxe zituen Asian, 14 Afrikan, 40 Europan eta 7 Ameriketan.

Mende bete geroago (2007), Mariaren Frantziskotar Misiolariak datu hauek zituzten: 7.074 lagun ziren, horietako 6.272 behin betiko profesu eginak. Urte berean, 3.000tik gora ziren Asian bizi zirenak, ia 2.000 Europan, 1.000 eta gehiago Afrikan, 800en bat Amerikan.



Iruñeko Nobiziotza-etxea (1954)

Euskal Herrian kokatuta

XX. mendeko lehen hamarkadan, hainbat Kongregazio etorri zen Frantziatik Euskal Hegoaldera, Combes erradikalaren politikak bortxatuta (1902...). Zerbait lehentxeago, ez zen izan hori frantziskotar moja hauen kasua: ihesi ez baizik indar berrien bila etorri zen Kongregazioa gure artera, eta 1900ean lortu zuen Iruñean komentua bat irekitzea, gerora Penintsula osorako sortetxea izango zena, eta gaur egun ere Kongregazioaren Penintsulako Etxe nagusia dena.

Euskal Herriko Etxeak, Iruñekoaz gain, beste ondoko hauek izan dira: Iparraldean Kanbo (1922), Sondika eta Arrankudiaga Bizkaian (1954, 1996), Obanos Nafarroan (1971-1987) eta Errenteria Gipuzkoan (1978).

Misiolari frantziskotar hauen euskal herritotasuna Etxeetan baino erakarri izan zituzten mojak gazteena izan da batez ere: XX. mendean 890 neska euskal herritar sartu zen Kongregazioan: horietako 20 Iparraldekoak izan ziren, 565 Erkidego Autonomokoak, 305 nafarrak; guztiok Estatu osokoen %46a izan ziren (1899-1989). Nabaria da, hortaz, Kongregazioan euskal herritarrek izan duten presentzia.

Aginte-mailan hemengo Probintzian ez ezik mundu osoko beste Probintzian ere euskal herritarrik egon izan da agintzen, Probintzial gisara edo Kongregazioko Kontseilu Orokorrean (Erroma); batzuetan, gainera, batetik besterako ibilera ez arrunt batekin: Espainian Probintzial izanda, Kanada edo Filipinetan kargu bera hartuz; norbait Marokon ari zen bezala beste

bat Indonesia, Feroe eta Islandian edo Sri Lankan aginduz.

Ditugun estatistiketan bokaziorik gehien eskaini zuten herrialde, hiri eta herriak honela banatzen dira (betiere 1899-1989. urteetan): herrialdez, Nafarroak 305, Gipuzkoak 282, Bizkaiak 220, Arabak 63; hiri eta herrietan, berriz: Iruñeak 40 eman zizkion Kongregazioari, Bilbok 37, Oñatik 33, Donostiak 29, Zeanurik 21, Gasteizek 14. Bokaziotan urterik emankorrenak 1950. hamarkadakoak izan ziren.

Euskal Herriko mundu zabalera joandako Mariaren Frantziskotar Misiolariak eguzkialde guztietara iritsi dira. Badakigu, 1899-1989. urteetan 323 joan zirela Amerikara, 310 Europara, 188 Afrikara, 133 Asiara eta 2 Ozeaniara. Oro ar, joandako herrialdeetan bizialdi luzeak emateko izan ohi zen: misiolarioke ziren joan-etorriko ONG/GKEak, bertan geratzekoak baizik. Kongregazioak erakutsi zuen erakarmen-indarrean fraide frantziskotarrek ere izan zuten zerikusirik.

Kongregazio honetako historiara pasatako moja ezagunik egon da gure artean, kasu honetan Misiotetan bortxakeriaz hildakoak: Teresalina Zubiri sondikarraren heriotzak sona handia irabazi zuen (Kaxmir, †1947), eta A. Sorarain-ekeskaini zion biografia bat (*Lili txuria odolatan*, 1955); era bertsuan, Irene Pérez Goienetxe erronkariarrak ere (Kisangani, †1964) bere biografia du.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580